# Lanak egin aurretik jarduera arkeologikoak eta paleontologikoak egiteko baimena

Fitxa interneten bistaratu

## INFORMAZIO OROKORRA

### Helburua

Obra lizentzia lortu aurreko nahitaezko baimena, obrak egitearen ondorioz ukituko diren kultura-ondasun deklaratuko eremu edo ondasun arkeologiko edo paleontologikoetan.

### Nork tramitatzen du

- KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA
- Kultura Ondareko Zuzendaritza Nagusia
- Ondare Historiko-Artistikoko, Bildumetako eta Museoetako Zerbitzua

### Nori zuzenduta

Obren sustatzailea edo sustatzaileak.

### Baldintzak

Baimenaren titularrak zuzendu beharko du baimendutako jarduera arkeologikoa eta paleontologikoa. Baimenaren titularrak pertsona fisikoa izan behar du eta egiaztatu beharko ditu: unibertsitateko titulua, arkeologia eta paleontologian prestakuntza nahikoa, baimendutako jarduera arkeologiko edo paleontologikoko jarduerak bere gain hartzeko esperientzia kontrastatua, eta esku-hartze eremuarekin bat datorren aldi historikoan edo aldi historikoetan prestakuntza egokia.

## HASIERA ETA ESKAERA

### Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

Lanak egin aurretik jarduera arkeologikoak eta paleontologikoak egiteko baimena (formulario PDF betegarria)

### Aurkeztu beharreko agiriak

- Eskabide inprimakia beteta
- Egin nahi diren obren proiektuaren kopia, hala badagokio, udaleko obra lizentzia lortzeko aurkeztutakoa.
- Proiektu arkeologikoa atal hauek barne:
- Orubearen potentzial arkeologikoaren ebaluazioa jasotzen duen memoria, dokumentazio historikoa..
- Metodologia
- Planoak, argazkiak.
- Jarduera egutegia.
- Aurrekontua

### Eskaera moduak

» Internet » Presentziala

### Internet bidezko eskaera

**Pertsona juridikoak eta profesionalak**

- **Bide telematikoz:** Online izapidetzea

Lanak egin aurretik jarduera arkeologikoak eta paleontologikoak egiteko baimena (formulario elektronikoa)

**Pertsona fisikoak**:

- **Bide telematiko**z: Online izapidetzea

Lanak egin aurretik jarduera arkeologikoak eta paleontologikoak egiteko baimena (formulario elektronikoa)

### Tramitazio elektronikorako beharrezko identifikazioa

» Ziurtagiria eta B@KQ

### Zuzeneko arretarako bulegoak

**Pertsona fisikoak:**

**Arreta Zerbitzua**
Gipuzkoa plaza z.g. 20004 Donostia.
Ordutegia: Astelehenetik ostegunera, 08:30-18:30. Ostiraletan, 8:30-14:30. Abuztuan, astelehenetik ostiralera, 08:30-14:30.
Telefonoa: 943 11 21 11

## EBAZPENA

### Ebazteko gehienezko epea

Ebazpenerako aurreikusitako epea: hilabete bat.

### Administrazioaren isiltasuna

Ezestekoa

### Honen bidez jakinarazten da

» Jakinarazpen elektronikoa

## ARAUDIA

6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondareari buruzkoa
33. eta 66. artikuluak

## INFORMAZIO OSAGARRIA

### Oharrak

IZAPIDEAK:
1. Dokumentazioa erregistratzea, eta zuzentzea, behar bada.
2. Ondare Historiko-artistikoaren, eta Artxiboen Zerbitzuko arduradunak eskaera aztertuko du eta proposamen txostena egingo du.
3. Idazkaritza Teknikoak ebazpena prestatuko du.
4. Kultura Zuzendaritza Nagusiko titularrak ebazpena onartzea
5. Idazkaritza Teknikoak ebazpena jakinaraztea

- Jarduera zuzentzen duenari
- Kultur ondarea kokatzen den udalari
- Eusko Jaurlaritzari

6. Ondare Historiko-artistikoaren, eta Artxiboen Zerbitzuko arduradunak jasotzea baimendutako memoria arkeologiko eta paleontologikoa.